



Lasarte-Oriako Udaleko ordezkariak, ikastetxeetako zuzendariak eta Ttakun Kultur Elkarteak lehendakaria hitzarmen sinaketa ekitaldian.

Euskara sustatzeko hitzarmenak

Udalak Ttakun Kultur Elkartearekin eta ikastetxeekin hitzarmena sinatu du

Udalak, Ttakun Kultur Elkarteak eta herriko ikastetxeek euskaren erabilera sustatzeko diru laguntzen hitzarmenak sinatu zituzten asteazkenean.

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Euskara Batzordeko lehendakari den Iñaki Mugika, Mari Jose Eizmendi Ttakun Kultur Elkarteak lehendakaria, ikastetxeetako zuzendariak, Sasota-Zumaburu ikastetxetik Marga Iturriza, Landaberri ikastolaren izenean Josu Garmendia, Mari Jose Murua Landaberri DBHtik eta Ester Urrutia Lasarte-Usubil institutuaren izenean, eta Xabier Ejea Udaleko idazkaria izan ziren hitzarmen sinaketa ekitaldian.

Hauen bitartez elkarteak eta ikastetxeek hainbat programa eta egitasmo eramango dituzte aurrera.

Ttakun Kultur Elkarteak

Ttakun Kultur Elkarteak beder-

ratzi programa martxan mantentzeko 168.111,48 eurotako diru-laguntza, iaz baino 20.000 euro gutxiago, jasoko du hitzarmenaren bitartez.

Programa hauen barruan, multzo nagusia haurren eta gazteen aisialdia euskalduntzera zuzendutako programak biltzen ditu, hala nola, udako txokoak, *Amarau*n ludoteka edo *Kuadrillategi* programa.

Bestetik, Euskara Batzordeak *Txintxarri* aldizkaria laguntzen du diruz.

Eta azkenik, *Solaskide-Solasbide* programa dago. Honen bitartez, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskara ikasten ari direnekin edo hitz egiteko harreman-sareak nahi dituztenekin harremanetan jartzen ditu.

Programa horien guztien antolaketa, jasoleei informazioa ezagutarazteaz, langileen kudeaketaz, ebaluatzeaz eta diru kontuak kudeatzeaz

Ttakun Kultur Elkarteak arduratuko da.

Ikastetxeak

Bestalde, Udalak herriko lau ikastetxeen zuzendariekin onetsitako laguntzak sinatu zituen. Lau ikastetxeek jasoko duten diru-laguntza desberdina bada ere, guztira 44.457,19 euro banatuko dira.

Alkateak Udaleko Euskara Batzordeak eta ikastetxeek, Udala osatu zenetik, gure herriko haur eta gazteen hizkuntzagaitasuna hobetzeko eta euskaraz hitz egiteko ahalik eta erraztasun eta ohitura gehien lor zezaten elkarren eskutik lan egiten dutela adierazi zuen.


Harreman horrek emandako lan-giro zintzoaren bidez gauzatu ahal da, adibidez, aurten egin den aldaketetako bat. Izan ere, Lehen Hezkuntzako ikastetxeek diru-laguntza gutxiago jasoko dute, baliabide batzuk Bigarren

Hezkuntzako behar berrietara pasa direlako.

Horren ondorioz, eta beti Udalaren, Ttakun eta ikastetxeen arteko elkarlana elikatuz, *Gazteen komunikazio-trebetasunak garatzen* izena duen egitasmoa prestatu ahal izango da.

Ikastetxetan egiten diren diruz lagundutako programen artean, ikastetxeetako aldizkariak, pertsonaia ezagunen bisitak, eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko *Hezitzaileek asko egin dezakete!* programa, *Lagunarteko hizkerarekin jolasean* programa edo *Ahozkotasuna eta bertsolaritza* programa daude.

Alkateak erakunde hauek egiten duten lanarekin eta aurten egoera ekonomiko zailera moldatzeko egin duten ahaleginarekin ere pozik dagoela adierazi zuen. Izan ere, Udalak diru-laguntza hauekin ahalegin handia egiten duela jakin arazi zuen. •



Erik Arzallus herriko aktore gazteak, gaur estreinatzen den "Urnieta 59" obran lan egiten du /4

JAIK / 3

Martxoan diren Inauteriak prestatzeko deialdi irekia

GIZARTEA / 5

Erraustetaren aurkako plataformek Donostialdeko PTPari emendakinak egin dizkiote

KIROLA / 6

Ostadar Kirol Fundazioko atletismo atalak kirol jantzia berrituko du

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi Barren kalea 3
Tel: 943 361278
943 361655
943 362451
Lasarte-Oria

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ORDIZIA OTSAILAK 3 osteguna, 17:30

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORRIATZA OTSAILAK 3 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

DONOSTIA URTARRILAK 29 larunbata, 10:30

Miramongo Parke Teknologikoko eraikin nagusia

ARETO NAGUSIAN

Etorri aurretik izena eman!



Neure kabuz



Sentimentala jarriko naiz gaur

...ekonomiaz hitz egingo dut, beraz. Logiko, ezta? Ez litzateke arraro gertatu behar behintzat, dena elkar lotuta baitago mundu honetan.

Kontua da laster beteko direla 25 urte gure herria sortu zenetik. Eta sentimental jarri naiz. Ez urteurrenagatik. Ez, ez. Urteurrenagatik ez, baina oroimenari atek ireki eta txikitako kontuak hasi zaizkit kilika: Mamo Wolde, Don Eduardo maisu zorrotza, uda aldean ura etxeratzeko iturriko ilaran emandako orduak, Zumaburu orube hutsa zela, orain jubilatuen etxea dagoen alde horretan altxatzen zen hormatzarra... horrela tiraka, Michelingo ehun eguneko greba historiko hartara, gazte nintzela ordurako, iritsi naiz. Ekonomiarira iritsi, alegia.

Ez da idealizatu behar, dena ez zen gorri kolorekoa izango, baina langile jendeak ehun egun gerrikoa estutu eta soldatarik gabe bizitzeari ekin zion, herriko eta inguruko herrietako jendearen elkartasuna besterik ez edukita. Modu intuitiboa agian, baina bi hitzetan: klase kontzientzia. Kontzientzia kolektiboa, behintzat. Geroztik, ideologia burgesa inozo-inozo barneratu eta herritarrak izatetik bezero izatera pasatu gara. Orain, hedabide burgesek pentsioen sistema publikoa bideraezina dela esaten digute, besteak beste. Ez da egia. Gezur interesatueta ari dira. 27an egun bateko grebarako deialdia dago. Behar da. Ez da nahikoa, ordea. Bezero izatetik herritarrak izaltzerako bidean ehun eguneko beharko dira. Eta luzeagoak.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Oihane

Zorionak sorgintxo, 10 muxu pottolo amatxo eta familiarren partetik. Ondo pasa



Josu

Zorionak konturatu orduko badira 12! Ondo pasa! Gurasoak, Xabier eta Ane.



Pako

Zorionak aitona! Famili osoaren partetik.



Aratz

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Muxu pottoloak aita, ama eta Nai-ren partetik.



Mairer

Zorionak maitea zure 3. urtebetetzean eta oso ondo pasa! Aitaxo eta amatxoren partetik.

Hiribusaren ordutegia

	Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
	7:45	7:55	8:00	8:05
	8:15	8:25	8:30	8:35
	8:45	8:55	9:00	9:05
	9:15	9:25	9:30	9:35
	9:45	9:55	10:00	10:05
	10:15	10:25	10:30	10:35
	10:45	10:55	11:00	11:05
	11:15	11:25	11:30	11:35
	12:15	12:25	12:30	12:35
	12:45	12:55	13:00	13:05
	13:15	13:25	13:30	13:35
	13:45	13:55	14:00	14:05
	14:15	14:25	14:30	14:35
	14:45	14:55	15:00	15:05
	15:15	15:25	15:30	15:35
	16:15	16:25	16:30	16:35
	16:45	16:55	17:00	17:05
	17:15	17:25	17:30	17:35
	17:45	17:55	18:00	18:05
	18:15	18:25	18:30	18:35
	18:45	18:55	19:00	19:05
	19:15	19:25	19:30	19:35
	19:45	19:55	20:00	20:05
	20:15	20:25	20:30	20:35

tsst
943.361.741
www.tsst.info



LANEGUNAK

Jaiotzak

- Nerea Gundin Galán, urtarrilaren 12an
- Ioritz Rankou Isasa, urtarrilaren 2an
- Noa Prado Zapata, 2010eko abenduaren 28an



Azoka txikia

Ekaintza inmobiliarioak

• Lasarten logela alokatzen da pisu konpartitu batean. Interesaturik daudenak 600 612 085 telefono zenbakira deitu dezakete.

• Garaje bat alokatzen da Green plazan. Harremanetarako zenbakia, 943 492 558.

• Lasarte-Oriann lokal bat alokatzen da. Interesaturik daudenak 615 735180 telefono zenbakira deitu dezakete.

• Garaje bat salgai edo errentan jartzen dut, kultur etxeko eremu-ko etxebizitzetan. Harremanetarako zenbakia, 610 961 369.

Lan-ekaintzak

• Pertsona bat ekaintzen da helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako, etxeko lanak... interna moduan edo orduka lan egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia: 697 608 202.

• Begirale bat behar da ikasturtean zehar lanean aritzeko. Baloratu da: begirale titulua eta esperientzia izatea, trebezia sozialak izatea, informatika ezagutzak. Tel.: 943 371448, posta elektronikoa: zerbitzuak@ttakun.com.

Lan-eskariak

• Frantseseko klaseak ematen ditut, baita frantseseko mintza-praktika ere. Itzulpenak ere egiten ditut. Tituluduna. Harremanetarako telefono zenbakia: 680 581 914.

• Eskarmentu eta esperientzia handiko gizon bat lan bila dabil. Prest edozein lanetarako. Harremanetarako telefonoa: 642 904 433, Jon.

Bestelakoak

• Umea eramateko mendiko motxila erosiko nuke. Harremanetarako zenbakia, 647 973 854.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 21

Gil, Kale Nagusia 24

Tel.: 943 361529

Larunbata, 22

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea

Tel.: 943 361774

Igandea, 23

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea

Tel.: 943 361774

Astelehena, 24

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6

Tel.: 943 363549

Asteartea, 25

Urbistondo, San Frantzisko 1

Tel.: 943 366567

Asteazkena, 26

Orue, Jaizkibel plaza 2

Tel.: 943 362652

Osteguna, 27

De Miguel, Kale Nagusia 32

Tel.: 943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

- Osasun Zentroa . . . 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria . . . 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udala

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Zerbitzu Sozialak . . 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia . . . 943 361621

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A. **Aleak zenbakiko:** 7.700 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publikizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Txankete eta bere lagunak bisita izan genuen izako inauterietako desfilean.

Martxoan ospatuko diren Inauteriak prestatzeko deialdia

Aurten egun osoko festa antolatu nahi da eta herriko zenbait elkarte hasi dira lanean

Azken bi urtetan antolatutako desfile erraldoiaren arrakasta ikusirik, dagoeneko herriko hainbat elkarte hasi dira lanean aurtengo inauteriak prestatzeko.

Aurten inauteriak nahiko berandu datoz, martxoaren 5 eta 6ko asteburuan ospatuko dira Lasarte-Orian, eta aurtengo gaia zehaztuta ez badago zehaztuta, larunbatean egun osoko festa antolatzearen alde egin dute bildutako elkarte eta taldeek.

Urteik urtera herriko balkoi eta leiho gehiago agertzen dira globo eta oihalekin apaindurik inauterietan;

tabernak ere, gero eta gehiago dira dekoratzen dituztenak... Herria giroturik ikusteak, herriarrei animuak ematen dizkiete mozorrotzeko eta inauteriez gozatzeko.

Deialdi eta gonbite irekia

Aurten ere, lanean antolakuntzan dabilen elkarte eta taldeek, deialdi eta gonbite zabala egin nahi diete herriko elkarte eta norbanako guztiei festan parte hartu dezaten. Festa parte-hartzailea antolatu nahi dute eta "horretarako zenbat eta jende, elkarte eta talde gehiago bildu, hobeto" adierazi dute antolatzaileek aho batez.

Bilera

Lan-taldea bilera bat antolatu du, parte-hartu nahi duten guztiekin batera egun osoko jaia antolatzeko joateko eta gaia aukeratzeko.

Antolatzaileek azpimarratu nahi izan dute "ez dago esan beharrik bilerara eramaten diren proposamen guztiak ongi etorriak izango direla eta denon artean adostu eta hartuko direla erabakiak".

Esandako bilera hori, datorren asteartean izango da, hilaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan Ttakunen (Geltoki kalea 4). Oraindik hilabete falta bada ere, lehenbailehen hasi nahi dute. •

ERREGEEN KABALGATA

Kabalgatari buruzko azalpena

Erregeen kabalgatako lagunak, MEGABA elkarteak, urtarrilaren 5eko Erregeen kabalgatari buruzko azalpen batzuk eman nahi ditu.

MEGABA elkarteko lagunak adierazi digutenez, errege kabalgatan arazoak izan zituzten bai karrozarekin, baita zuziriek ere.

Karrozari dagokionez, "zuhaitzetako adarrek dekorazioa puskatu eta ibilbide osoa kolokan egin zuten. Arrisku handia zen eta eroriko ziren beldur ginen," azaldu digute.

Eta zuzirien kasuan, haizea izan zen arazoa, "ibilbide erdialdean Brigiten komentura iritsi baina lehen asko aldatu behar izan genituen eta noski, erdialdean zuziririk gabe egotea ez litzateke polita izango."

Gauza hauek abiadura azkarragoa eraman eta kabalgata hain ikusgarria ez izatea ekarri zuen. Izan ere, antolatzaileek adierazi digutenez, nahiz eta aurten ibilbidea luzatu, aurtengo Kabalgata 30 minutuko aurrerapenarekin iritsi zen Andatza plaza. •



Pozik jaso zuen Pedro Perez herritarrek 1.500 euroko saria.

ZOKKETA

Ogi-Berriko 1.500 euroek badute jabea

Pablo Mutiozabal kaleko Ogi-Berri okindegiak zuen 1.500 euro-tako saria Pedro Perez herritarrek eskuratu du.

Abenduan zehar txartelak banatu ditu okindegiak eta diru-saria urtarrilaren 6an burutu zen "El niño" loteria nazionalako zozketako zenbakiarekin, 70013, bat egiten zuen txartelak lortu zuen.

Gauzak honela, asteazkenean jaso zuen onuradunak Pedro Perez okindegiko arduradunaren eskutik bere saria eta zertan gastatuko duen badaki gainera, "seme-alabei oparitxo bat egin, afari bat eta geratzen denarekin ikusiko da". •

Michelingo lanak direla eta, Ostadarrek kalteak salatu ditu

Ostadar Kirol Taldeko arduradunek Kirol Gune ondoan egiten ari diren lanek kalte ekonomikoak sortu dietela salatu dute.

Komunikabideetara bidali duten oharrean azaltzen dutenez, "garesti ordaintzen ari da Michelingo eremuan egiten ari diren obrak".

Sarea jarri

Kirol elkarteko ordezkariak adierazi dutenez, "obrak hasi zirenean, zelai ondoan zegoen biltegian, Udaletxeak ez zuen aurrikusi Michelingo zelaian entrenamendu eta partidu mordo bat antolatzen zirela eta direla, ez zuen aurrikusi sare bat, derrigorrezko elementua, behar zela baloia eremu horretara ez joateko".

Izan ere, baloien galera handia da. "Batzuk galduta, beste batzuk zeharo puskatuta burnizko puntuekin jo ezker, halaxe doa aurtengo futboleko denboraldia," adierazi dute.

Ostadarrek udaletxeak dirurik ez dagoela eta ondorioz, babesteko jarri behar den sarea itxaron egin behar duela salatzen du.

Era berean, klubaren egoera ekonomikoa ere latza dela azpimarratzen du, "Klubok ezta, ez daukagu dirurik, krisialdi garaia denontzat da, batez ere, besteak egindako erroreak ordaintzeko".

Aurrekontuan sartu

Gauzak honela, Ostadarreko arduradunek sarea jartzea eta taldeen kalte ekonomikoak,



Sareri ez dagoenez, entrenamendu, zein partidetak baloia Michelin lantegiko obretara doa eta horietako asko galtzen dira.

Ostadarrentzat "momentuz 400 euro", hurrengo aurrekontuetan izatea espero dute.

Baina, kalte ekonomiko horiek handitu daitezke jakin arazten dute Ostadarre-

tik, "tamalez, hau ez da bukatu futboleko denboraldia erdi-ere ez baita iritsi". •

Erik Arzallus Aktorea

“Inprobisatzeko ez dut eragozpenik”

■ Gaur, ostirala, estreinatuko dute “Urnieta 59” antzezlanaren Sarobe aretoan ■ Italian egingo dituzte produkzio ikasketak ■ Datorren ikasturtean Madrilera doa arte dramatikoaren ikastera

Asteburu honetan Sarobe aretoan estreinatuko duten “Urnieta 59” izeneko antzerki laneko bost protagonistetako bat da, Erik Arzallus aktorea. Azken egunotan ordu asko eman du lan hau prestatzen, baina oso pozik ari da. Gainera, produkzioa ikasten du Andoaingo Zine eta Bideo eskolan, Kukukan 6-7 urteko haurrei antzerkia erakusten ari da eta tabernari egiten du lan. Apirilean Italiako Rimini hirira doa praktikak egitera eta datorren ikasturtean Madrilera arte dramatikoaren ikastera.

JON ALTUNA

U rnieta 59 lanean bikote baten historia kontatzen da: 1959an soldaduska egitera Urnietara datorren Valladolid-eko gaztea urnietar batekin maitemintzeak eragiten dituen arazo, oztopo eta bestelako egoerak, bi toki oso ezberdinetako pertsonen hartu-emana, bi hizkuntza, frankismoaren azken urteak,...

Nolatan lasarteoriatar bat Urnietan antzerkia egiten?

Egia esan, joan eta 45 aktoerak, denak urnietarrak ziren. Bata okina, bestea tabernaria, ... denak ezagutzen ziren.

Talde amateurra da beraz, baina nahiko serio ari dira, asko dira taldean,...

Gazteena ni naiz, 19 urte ditut eta hori gustatu zait. Badira 65-70 urtekoak oraindik hor dihardutenak eta oso jatorrak direnak.

Nolatan deitu zizuten?

Lasarte-Oriako taldeko Kontxu lartzari 20 urte inguruko aktore bat behar zutela, “unibertsitariora” esan zioten. Honek, paper txiki bat zela eta ea prest nengoen galdetu zidan, eta nik, antzerkia niretzat dena denez, baietz esan nion. Zuzendariarekin hitz egitera joan, dena azaldu zidan eta handik ordu batera entsaiatzen

hasi ginen kultur etxean.

Baina ez da paper txiki bat... Ez, hori esan zidan Kontxuk, baina bost protagonista dira, ni, nire neska, honen ama eta aiton-amonak.

Nolako taldea da Urnietakoa?

Handia. Ni beti talde txikietan ibili naiz gehienez 13 pertsona izan gara. Honetan, 75 lagun gara, 40 bat aktore, 15 neska gazte dantzari eta antzerkiko musika zuzenean jotzen duen beste hamar laguneko orkestra.

Asteburuan eskaintzen duzue Urnietan...

Ostiralean da aurre-estreinaldia senide eta laguntzat Sarobe aretoan, larunbatean bi aldir eskainiko dugu 5etan eta 8etan eta igandean 5etan. Sarrerak segituan agortu ziren. Hurrengo asteburuan Andoaingo Basteon izango gara.

Zer moduz doa prestaketa? Seguru al zaudete?

Ni bai. Inprobisatu behar badut inprobisatuko dut. Ez daukat horretarako arazorik. Zuzendariak esaten du lan asko dagoela oraindik egiteko eta aste honetan entsegu asko jarri ditu. 15 eszena dira, 40 aktore eta batzuek oraindik larri dabilta.

Kukuka, herriko taldea ez duzu utzi, ezta?

Ez. 8 urterekin hasi nintzen eta

hor jarraitzen dut.

Irakasle ari zara, ezta?

Iaz hasi nintzen. Kontxuri komentatu nion hasi nahi nuela, 6-7 urtekoekin aritu nintzen eta aurten talde berdinarekin jarraitzen dut.

Antzerkigintza eta aktore lana zuzentzat zaletasuna baino pixka bat gehiago da jada, ezta?

Bai, zaletasuna baino nire bizi-tza da. Arte dramatikoaren ikastera noa eta hori ondo ateratzen bada nire helburuetako bat beteko dut.

Oraingoz produkzioa ikasten ari zara...

Bai, Andoaingo Zinema eta Bideo Eskolan. Egia esan, Batxilergoa amaitu, selektibitatea gainditu eta Madrilera joan nahi nuen 17 urterekin arte dramatikoaren ikastera, baina

gurasoek konbentzitu ninduten pare bat urte geratzeko, bizitza nolakoa den ikusi, dirua aurreztu eta herriko kameralari batzuek esan zidaten Andoainera joateko mundu hori nolakoa den ezagutzeko, nondik jo eta zer egin ikusteko. Horregatik hasi nintzen. Kamera atzekoa, baina asko ikasi dut.

Gainera kanpora zoaz praktikak egitera?

Bai, ez daukagu Bartzelona edo Madrilera joateko aukerarik, eta hemen Donostiako produkzio-etxe batean egin behar nituen, baina Erasmuseko ingeleseko azterketa egin, eta aukera sortu da. Italiara noa, Rimini hirira, apirilaren hasieratik San Pedroak arte.

Eta gero Madrilera arte dramatikoaren ikastera...

Bai, aste batzuek lagunekin pasa eta Madrilera noa. Unibertsitatean sartzeko probak daude, teoriko eta praktikokoak, eta hanga

irakasle batekin hilabetean hori prestatzeko asmoa dut.

Eta argi daukat unibertsitatean sartzeko aukerarik ez badut eskola pribatu batean hasiko naizela. Ez da berdina, baina... argi daukat bietako bat egingo dudala.

Esperientzia apur bat baduzu, han eta hemen ikusi zaitugu...

Pelikuletan gutxi atera naiz, pare bat egunetako errodajetan izan naiz, baina askoz gehiago ikasi dut Kataluniako produktore batekin egindako bi lanetan: “Itziarren Semeak” filmaren trailerrean, eta Osakidetzaentzat egin eta hurrengo urtean institutuetan ikusiko den sexualitateari buruzko publizitate-bideo batean.

Telebistan ere aritu zinen..

Martin Telesailekoa handia izan zen, nire lehenengo casting-a egin nuen Goenkale eta Martin telesailetarako eta Martin-erako hartu ninduten. Duela hiru urte, udaran, hila-bete eta piku izan ziren, astean bizpahiru egunetan egun osoa errodazten.

Madrilera bazoaz, hemen egin dituzun hainbeste gauza utzi behar, Kukuka, Santa Ana parodia, Multimusikaleko aurkezpena...

Pena bat da egia esan. Edozein paper ematen badidazu, nik ikasiko dut eta emango diot nire ikuspuntua. 500 pertsonen aurrean atera behar badut ere. Nahiago dut 500 pertsonen aurrean barregarri geratu, bost pertsonen aurrean baino. Bel-durrik ez da izan behar . •



Erik Arzallus beti dago antzerkian aritzeko prest. Orain Urnietako taldean ari da.

Elkarrizketa osoa
www.bxintxarri.info
webgunean



ANAIAK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386

Erraustegiaren aurkako alegazioak

■ Asteartean aurkeztu zituen plataformak Donostialdeako PTParen aurkako arrazoiak Jaurilaritzan.

■ Zubietako proiektuaren aurkako argudio juridiko-politikoekin batera, ingurumenari, finantzaketari, energiari eta osasunari dagozkienak gehitu diete

Errausketaren aurkako Gipuzkoako plataformen koordinakundeak, asteartean aurkeztu zituen Zubietako Erraustegiaren aurkako alegazioak Jaurilaritzako Ingurumen Sailean. Hainbat arrazoi erabiltzen ditu plataformak Donostialdeko PTP (Lurralde Plan Partziala) plangintzaren baitan Zubietako Erraustegiaren egitasmoaren aurka egiteko, besteak beste arrazoi juridiko-politikoak eta ekonomikoak batetik eta osasun-ingurumenari dagozkionak bestetik.

JON ALTUNA

Artzabaletan, Zubietan gainera eraikiko den "Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa Zentroa" izena hartu duen proiektuaren aurkako alegazioak sei parte ditu. Lehenengoa, afera politiko-instituzionalari, arlo juridikoari, arau-oinarri gabeziari eta legea hausteei dagozkio. Hemen batetik zera argudiatzen dute, 7/2008 arau forala dela Aldundiko hondakin "planifikazio" guztiaren oinarria, baina Udalei dagozkien eskuduntza batzuentzat, eta hau erabaki judizial batzuek zalantzan jarri dutela azkenaldi honetan. Bestalde, 24/2009 dekretu foralaren bidez onartu zela Gipuzkoako hondakin azpiegituren "PTS"a, eta dekretu forala baino arau forala behar dela

argudiatu dute.

Gainera, Jarduera Gogakari, Osasungaitz eta Arrisku-tsuen Araudia argudiatzen dute, hain juxtu herrietatik bi kilometroko gutxiengo distantziari dagokion atala; zarata maila baimendua baino altuago izango dela; kirats arazoak eta Europako Inbertsioen Bankuarekin finantzaketarako adostutako baldintzak ere bai, zama handia izango delako hondakin kudeaketan aldatketaren bat egin nahi bada.

Arrazoi ekonomikoak

Ekonomia arrazoiak ere aurkeztu dituzte Jaurilaritzan. Batetik 264.010.000 euroko aurrekontua ez dela zuzena argudiatzen dute. 500 milioi euroko aurrekontua gaindituko dela uste dute plataformek, aipatutako aurrekontuari benetan izango diren beste



lazio ekainean, erraustegia eraikitzeko proiektuaren moratoria eskatzeko manifestazioa egin zen Donostian.

gastu batzuek gehituz gero. 264 milioiko Gauzatze Aurrekontuan ez dira zenbait arlo kontutan izan, esaterako gastu orokorrak (%13), irabazi industrialak (%6), BEZa (%16) Kalitate, Segurutasun eta Osasun Kontrola ezta beste laguntza tekniko batzuek ere.

Erraustegia jarriko den zoria prestatzeko lanak ere ez dira kontutan izan, hau da, lur mugimenduak, gutxi gorabehera 300 metroko luzera duen bi norabideko sarbidea (azken 100 metroan tunela), sarbide honen azpiegiturak, (euri ur eta ur zikinaren sareak; loturak; edateko ur, argi indar, gas, argi,... sistemak) eta hauei dagozkien Kalitate Kontrol, asistentzia tekniko eta beste betebeharrak ere ez. Beraz guztia batuta aurrekontua 500 milioi eurotik gorakoa izango dela salatzen dute.

Beraz, plataformek salatzzen dute errausketan oinarritutako kudeaketa hau osasun eta ingurumen aldetik desegokia izateaz gain, gaikako bilketa eta birziklapen (konposta) intentsibo sistema alternatiboetan oinarritutakoa

baino askoz ere garestiagoa dela.

Neurriz kanpokoa

Ingurumen argudioei dagokionez, alegazioetan erraustegiaren dimentsioa handia aipatzen da: urtean 320.000 tona tratatzeko gaitasuna baldin badu, horrek hondakinak maila horretan (kopuru handia) erreko direla esan nahi du eta ondorioz, hondakin birziklapenaren hazkundea etengo dela, hondakin organikoaren gaikako bilketa martxan jartzea galaraziko dela eta besteak beste berotegi efektua (eta klima aldaketa) eragiten duten gas isurketak ugartu egingo direla kontrolik gabe.

Plataformen ustez, jokabide hau ez da bidezko, ez beharraren ez egokitasunaren aldetik. Ez da egokia eta ez da bere beharrik. Gainera, hainbat plangintza ofizial eta Europako arau hausten ditu.

Osasunari dagokionez, Greenpeace erakundearen Ikerketa Laborategietako eta Britainia Handiko Exeter Unibertsitateko Michelle Allsopp, Pat Costner eta Paul Johnstonen Errausketa eta Osasuna

Txostena aurkeztu dute Jaurilaritzan eta Greenpeacek ikerketa honi buruz atera duen argitalpena ere bai.

Atzerapen eskaera

Gainera, Usurbilgo Akordioaren sinatzaileek eskatutako erraustegia eraikitzeko proiektuaren sei urtetako atzerapen edo moratoria eskaera ere aurkeztu dute.

2010eko martxoaren 12an egin zuten eskaera, besteak beste, Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko Udalek, Aralar, EB, Ezker Abertzalea, Alternatiba eta Berdeak alderdi politikoek, ELA, CC.OO, LAB, EILAS, ESK, ENHE eta Hiru sindikatuek, Greenpeace, Ekologistak Martxan eta Eguzki talde ekologistek, Erraustegien Kontrako Plataformen Koordinakundea eta Gipuzkoa Zero Zabor elkarteak.

Energi-eraginkortasun aldetik plataformak salatu du proiektua "etorkizuneko aurreikuspenetan" oinarritzen dela baina zehaztasunik gabe, eta erabiliko den eredu manipulatzeko duela, argi indar eta gas natural kontsumoa ahaztuz. •

M. Berasategi Kafeak



Beti dago aukera kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE ZAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a....

KAFE ARABIKOAK

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Bafiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316 LASARTE-ORIA

Kiroletako agenda

I FUTBOLA I

Larunbata 22

10:30ean, Ostadar - Usurbil (Partehartze Infantilak) Michelinen.
 11:00etan, Ostadar - Elgoibar (Infantil txikiak, kopa) Michelinen.
 13:30ean, Ostadar - Hernani (Kadeteen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.
 15:30ean, Ostadar - Euskalduna (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.
 17:15ean, Texas Lasartearra - Mariño (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

10:30ean, Real Sociedad - Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, txapelaldunen fasea) Zubietza, Donostian.
 16:30ean, Gure Txokoa - Ostadar (I. Erregionala, igoera fasea) Matxada, Beran.
 17:00etan, Touring - Ostadar (Erregional Gorena) Fanderia, Errenterian.
 17:30ean, Allerru - Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Plazeta, Lezon.
 18:00etan, Hernani - Ostadar (I. Jubenila, kopa) Zubipe, Hernanin.

Igandea 23

10:00etan, Ostadar - Orioko (Alebinak, kopa) Michelinen.
 11:15ean, Ostadar - Tolosa (Emakumezkoen KDT F-11, txapelaldunen fasea) Michelinen.

09:30ean, Sporting de Herrera - Ostadar (I. kadetea, kopa) Herrera, Donostian.

I ARETO-FUTBOLA I

Ostirala 21

HERRIKO TXAPELKETA
 19:45ean, Epel - IOB H.K.
 20:40ean, Ayete - Ilargi

Larunbata 22

18:00etan, ISU Leihoak - Donibane Pari Berri (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Naiban - Obelix
 11:00etan, Katakars - Izkiña
 12:00etan, Izarra - Semblante Andaluz
 13:00etan, Kalaberri Z - Illun
 15:00etan, Oria kris. - ISU Leihoak.
 16:00etan, Buenetxea - Lekuona Mena

Igandea 23

10:45ean, Aldaz H.K. - Jarrilleros (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Indaux - Ainhoa
 11:00etan, Viña del Mar - Morrison's

I PILOTA I

Larunbata 22

15:30ean, Intza - Oiarpe I (Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Michelingo frontoian.

15:30ean, Intza - Gazteleku 4 (Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka, infantilak) Michelingo frontoian.
 15:30ean, Intza - Euskal Jolas I (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, II. kadeteak) Michelingo frontoian.
 15:30ean, Intza - Hernani (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. seniorra) Michelingo frontoian.

09:15ean, Intza I - Oiarpe 3 (Gipuzkoako Trinketa txapelketa, eskuz banaka kadeteak) Ametsa trinketa, Iruran.
 09:15ean, Intza 4 - Oiarpe 4 (Gipuzkoako Trinketa txapelketa, eskuz banaka kadeteak) Ametsa trinketa, Iruran.

I ATLETISMOA I

Ostirala 21

18:15etatik aurrera, LOKEko atleta gazteek kadete, jubencil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketako jauzi hirukoitzeko proba dute Anoetako belodromoan, Donostian.

18:30etatik aurrera, Landaberri eta Sasoetako gazteak alebin eta infantil mailako eskolarteko lehiaketako partehartze libreko probak dituzte Anoetako belodromoan, Donostian.

Larunbata 22

16:45etatik aurrera, LOKEko atletak partehartze libreko proba dute Anoetako belodromoan, Donostian.

I JUDOAI I

Igandea 23

Goiza osoa, LOKEko judoek sambo eta borrokako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute Abetxuko kiroldegian, Gasteizen.

I TXIRRINDULARITZA I

Larunbata 22

10:00etan, Bazpi Txirrindularitza eskolako gazteek pistako Gipuzkoa txapelketan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

Igandea 23

10:00etan, Bazpi Txirrindularitza eskolako gazteek pistako Gipuzkoa txapelketan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

I BOLA-JOKOA I

Igandea 23

Egun osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak bikotekako txapelketa jokatu du, Michelingo bolatokian.

I ESKOLA KIROLA I

Larunbata 22

09:30etik 10:45era, LH4 mailako gaztetxoentzat Errugby topaketa antolatu da, kiroldegian.
 10:45etik 12:00etara, LH3 mailako gaztetxoentzat Errugby topaketa antolatu da, kiroldegian.



Ostadarreko atletismo saileko kirolarietako batzuk aurreko kirol jantziarekin.

Arg.: Txema Valles

Ostadarreko atletismo sailak kirol jantzi berriak izango ditu

Bazkide berrien kanpaina ere ireki du atletismo atalak

Ostadarreko atletismo sailak, bere kirol jantziaren berritzea dela eta, lasarteoriarrak animatu nahi ditu "taldeko partaide izan eta herri proba desberdinetan partehartzera edo ongi pasatzera".

"Duela hiru urte, Lasarte-Orioko korrikalari talde batek lasterketa ezberdinetan identitatea izateko kirol jantzia sortzeko ideia izan zuen," jakin arazi digute saileko arduradunak.

Horren ondorioz, Ostadar Kirol fundazioarekin, zeinek herriko kirol jarduera gehienak aurrera eramaten baitituen, hainbat bilera izan ostean, atletismoko saila sortu zen.

"Ostadarren laguntza eta Frutas Ruiz herriko denda eta Iparfrio enpresen babes ekonomikoarekin atletismo sailak bere lehengo kirol jantzia egin zuen," adierazi digute.

Geroztik, igandero biltzen dira korrika egiteko, Gipuzkoa eta beste herrialdeetako hainbat probatan parte hartu dute eta "horregatik, ezagunak egin gara," aipatu dute.

Ekipo berria

Egun jantziaren aldaketa beharrezkoa ikusten dute atletismo taldeko arduradunak, "aurreko ekipoa hobetu eta erosoago izan dadin, diseinua eta materialaren kalitatea aldatu behar da".

Horregatik, kirol jantzi berrien eskaera egingo du Ostadarreko sailak.

Beraz, bazkideei jakin arazten diete, kirol jantzi berria eskatu nahi dutenek urtarrilaren 31a arte dutela.

Bazkide berriak

Era berean, Ostadarreko atletismo sailak bazkide berriak bereganatzeko kanpaina jarri du martxan.

Interesa dutenek, Ostadarreko bulegora, Geltoki kaleko 25 zenbakira, hurbildu behar dira, astelehenetik ostiralera 17:00etatik aurrera edo 943 360 433 telefono zenbakira deitu behar dute, orduteki horretan. •

Ederki gozatu zuten errugbyra jokatzu

Eskola kirola egitasmoan Multikirola egiten duten benjamin mailako gaztetxoek, hau da LH3 eta LH4 mailakoek kirolez aldatu dute. Hiruhilabete honetan, errugbyan arituko dira eta lehengo larunbatean, urtarrilaren 15ean, izan zuten lehengo saioa.

Errugbya ezagutzen

Ostadar-Beltzak-Jalai taldeko kideen eta begiraleen eskutik, haurrak Errugbyko entrenamenduak ezagutu eta partida bat jokatu zuten.

Beroketa batzuk egin ostean, sigi-saga eta plakaketa ariketak zituen zirkuitu bat egin behar izan zuten haurrek.

Jarraian, linea deritzon ariketa egin zuten. Honetan bikoteka jarrita pase bat egin



Multikiroleko gaztetxoek errugby topaketak hasi dituzte eta ederki gozatu zuten.

eta entsegua egin behar zuten.

Amaieran, taldeka partida jokatu zuten.

Ordu aldaketa


Aste honetan ere, beste saio

bat dute. Larunbatean izango da kiroldegian, baina ordu aldaketa dago. Adi beraz, ondoan dagoen kirol agendari bertan agertzen baita talde bakoitzari dagokion ordua. •

Egunero

Erakusketa

TXEFO, ARTEA TALERRA izeneko erakusketa ikusgai. Txefo Mendezen argazkiak dira. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan, EUSKARAZ.



Larunbata, 22

Antzerkia

LA ULTIMA CENA antzerkia eskainiko du Guindalera taldeak. Sarrera 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan. GAZTELANIAZ.



Lasarte-Oriako eta Zarauzko bertso eskolen arteko desafioa

LASARTE-ORIAKO BERTSO ESKOLAREN DESAFIOA, herriko bertso eskola Zarauzko bertso eskolaren aurka arituko da. Herriko bertso eskolatik Beñat Iguaran, Unai Muñoa eta Zigor Iriondo arituko dira bertsoetan. Gaiak jartzen berriz, Imanol Lizardi arituko da.

GAUR, OSTIRALA 21
JALGI KAFE ANTZOKIAN
22:30EAN, EUSKARAZ

Igandea, 23

Zinea

LA TRAVESIA DEL VIAJERO DEL ALBA filma eskainiko dute haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.



Osteguna, 27

Zinea

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,30 euro. Kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ.



Ostirala, 28

Kontzertua

GORA GORA KIDS taldearen emanaldia. Talde honek nagusiki rocka lantzen du. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan, EUSKARAZ.

Larunbata, 29

Antzerkia

NORK IKUSI DU DULTZINEA? haurrentzako antzerkia eskainiko du Agerre Teatroak. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



Igandea, 30

Zinea

HARRY POTTER Y LAS RELIQUIAS DE LA MUERTE haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue Ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Sorgin dantza

Udalak 25 urte betetzen dituela eta, otsailak 20an Sorgin Dantza dantzatzeko aukera izango da. Gaztetxoek zortzikotean parte hartuko dute 1996ko urtarrilaren 1etik 1999ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoak. Urte bitarte horretan jaio direnak eta Sorgin Dantza dantzatzeko dakitenak otsaileko Sorgin dantzan parte hartu nahi badute, gaur, ostirala 21, arratsko 19:00etan kulturetxeko hitzaldi aretoan antolatutako bilerara joan behar dira.

Alboka txiki abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasiko ditu, urtarrilaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egiten da, astelehenean 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu

nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, bi erloju, urrezko pultsera, betaurreko graduatuak, eraztun bat eta MP3 bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Elikagaien bilketa Sahararen alde

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Aldeko Elkarteak kideek Sahararen Aldeko Euskal Karabanarako elikagai bilketari ekin dio. Bilketaren azken eguna hilaren 29an izango da

Urbil merkatal gunean.

Karabana honek elikagaiak errefuxiatuen kanpamenduetara eraman nahi ditu: arroz, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak. Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue herriko ikastetxeetan eta supermerkatuetan edukiontzia aurkituko dituzue.

Kukukaren egutegia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren aldeko egutegiak salgai daude 5 euroren truke Orbela belar dendan, Urruzola mertzerian eta Basaundiko Denda-Berrin.

Arratiako Jotien ikastaroa

Erketz Dantzaren Lagunak taldeak, urtarrilean hasita, Arratiako Jotien ikastaroa antolatuko du. Ikasi nahi duen oro dago gonbidatuta, azaltzea besterik ez du, asteartero 20:00etatik 21:15era Zumaburuko eskolara. Animatu zaitzete!

Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da

urtarrilaren 24an, astelehenean, arratsaldeko 17:00etan.

Zentro Zibikoko ikastaroak

Emakumeen Zentro Zibikoak apirila bitartean eskainiko dituen ikastaroetan izena emateko epea gaur, ostirala 21, amaitzen da. Hainbat ikastaro eta ekintza eskaintzen ditu Zentroak: batuka, eskulanak, frantsesa, mantentze gimnasia, pilates, kantua edo tai-chi eta inauterietako konpartsa prestatzea. Informazioa eta izena emateko pasa Zentro Zibikotik 9:30etik 13:30era eta arratsalde, 15:00etatik 20:00etara.

Ostadar Atletismo

Korrikarako zaletasuna dutenek Ostadarretik pasa daitezke izena ematera. Ekipazio berria egingo dute eta herriko gizon-emakume guztioi luzatua nahi diete Lasarteko korrikalari taldeko kide izateko aukera. Informazio gehiago Ostadarreko bulegoan, geltoki kalea 25ean, edo 943 360433 telefonoan. Komentatu lagunei eta animatu!! Epea: urta-

rrilaren 31 arte.

Ostadar Loteria

Ostadarrek urtero "El Niño"ko loterieren batera nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburua pasa zozketatzen du eta aurtengo zenbakia irabazle 70.013 izan da. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegora deitu behar du saria eskuratzeko. Tel: 943360433.

Futbol Porra

Ostadarrek antolatzen duen Futbol Porrako 2. itzulia hurrengo asteburuan hasiko da, horretarako boletoak eta zerrendak ohiko tabernetan egongo dira asteburu honetan bertan. Boletoak larunbatean, hilaren 29an, 17:00etan jasoiko dira. Aurreko itzuliko sari-banaketa urtarrilaren 28an, Ainhoa tabernan izango da 19:00etan.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Danborraden burrunba entzun zen Lasarte-Orian

Ikastetxeetako haurrek ederki astindu zituzten danborrak

Atzo, San Sebastian eguna zen, danbor eta upelen festa handia. Lasarte-Oriako ikastetxeek aurre hartu zioten festari eta asteazken arratsaldean, danbor hotsak entzun ziren gure herrian.

San Sebastian martxa, Iriyarena, Tatiago edo Polka dira atzo Donostia eta Azpeitiako egun handian, San Sebastian egunean, entzun ziren doinueta batzuk.

Herri hauetako haur eta helduen antzera, gure herriko ikastetxeetako haurrek ere egunak eman dituzte Donostia eguneko danborrada prestatzen. Halabaina, gure herrian bezperan, asteazkenean, ospatu zen festa handia.

Herriko haurrentzat ikasgelan egindako sukaldari edo soldadu jantzia eta egin dituzten entseguen emaitzak gurasoei erakusteko eguna izan zen.

Ilusio handia

Gauzak honela, Sasoeta-Zumaburu Ikastetxeako eta Landaberri Ikastolako ehunka

ikaslek danborrak hartu eta asteazken arratsaldean, Raimundo Sarriegiren piezak jotzeari ekin zioten irrikaz haien gurasoen begiradapean.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeako txikiak, Zumaburuko eraikineko patio estalian, izan ziren lehenak danborrak astintzen; gaztetxoak, berriz, Sasoetako eraikineko gimnasioan bildu ziren eta konpainia desberdinetan elegante-elegante banaturik hainbat pieza trebetasun osoz jo zituzten.

Landaberri ikastolako, Garaikoetxea eraikinean, haurrek patioan jo zituzten beraien danborrak, txikiak ilusio handiz lehenengoz astindu zituzten gainera; Zubietako eraikineko ikasleek ere txintxintxo jarraitu zituzten zuzendarien aginduak.



Landaberri ikastolako txikiak, gurasoen begiradapean, ilusio handiz jo zituzten lehenengoz danborrak Garaikoetxeako patioan.



Zumaburu-Sasoeta ikastetxeako gazteek gimnasioan bildu eta Sarriegiren doinuak jarraituz danborrak astindu zituzten.

GURUTZETA SAGARDOTEGIA



ZATOZ TXOTX EGITERAI!
ZATOZ TXOTX EGITERAI!
ZATOZ TXOTX EGITERAI!
ZATOZ TXOTX EGITERAI!

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURELEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxe: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com